

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailburua MONDRAGON UNIBERTSITATEAN

2015/04/28

Gaur goizean, apirilak 28, MONDRAGON UNIBERTSITATEAN, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailburuaren bisita jaso dugu.

Berarekin batera, Unibertsitate eta Ikerketako Sailburuordea, Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordea eta Sailburuaren Kabineteko Zuzendaria izan dira gure artean.

Unibertsitatetik berriz, Errektorea, Errektoreorde Akademikoa, Goi Eskola Politeknikoko Zuzendaria, Enpresagintza Fakultateko Dekanoa, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Dekana eta Idazkari Nagusia izan dira Eusko Jaurlaritzatik etorri diren autoritateekin.

Egitarauari dagokionean, MONDRAGON UNIBERTSITATEKO aurkezpena izan dute lehengo eta behin, eta ondoren campus desberdinak bisitatu dituzte: Enpresagintza Fakultatea Oñatin, Goi Eskola Politeknikoko laborategiak Arrasaten eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea Aretxabaletan.



Sailburuaren bisita MONDRAGON UNIBERTSITATEra